

BERRIGARA

118. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, irailak 17

JUSTO
GARATEREN
LIBURUA
AURKEZTUKO
DA GAUR

BERGARAKO
ORFEOIA
AHOTS
BERRIEN BILA

KIROLAK

AITOR ZABALETAKO
GORLAKO
KOTXE IGOERAN
USTEKABEKO
GARAILE



Ranrapatapan

JABIER AREITIO

IBIL ZAITEZ GOI MAILAN



Martxan jarri auto baten benetako balioak.
Martxan jarri ekipamendurik apartena.
Martxan jarri segurtasun neurri erosoena.
Martxan jarri Opel Vectra bat. Martxan.

300.000 Pezeta*
**BITARTEKO
DESKONTUA**

*Stock-can dauden autoentzako
promozioa hilabete-honetan.

OPEL

OPEL AUTO DENDA OFIZIALAK. DENBORAREN PODERIOZ ONENAK.

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa **ARRASATEN**:
Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIako
kontzesionaria

LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

IKASTARO ESKAINTZA

IKASTAROAK

- Ventura autoedizioa
- Automata programableak
- Ordenadorez lagundutako Autocad diseinua
- CAD elektrikoa (Shema)
- Mekanikoentzako elektrizitatea
- Kontrol numerikoa
- Word Perfect
- Dbase IV
- Kontabilitate Plan Orokorra
- Nominak eta Seguritate Soziala
- Kalitate kontrola

ORDUAK

- 30 ordu
- 40
- 40
- 40
- 40
- 40
- 40
- 40
- 40
- 40
- 40

HASIERA

- 93-10-4
- 93-10-4
- 93-20-4
- 93-11-22
- 93-11-22
- 93-11-8
- 93-10-4
- 93-10-22
- 93-10-4
- 93-10-4
- 93-10-4

☎ 76 38 40

Faxa: 76 38 41



**BEROGAILU,
GAS
eta
ITURGINTZA
AZTERLANAK**

**BAINU
DISEINAKETA**

**Masterreka, 14
BERGARA
☎ 76 54 14**

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara

Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereizbar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Inaki Eraña, Gorka Elorza eta
Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel
Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereizbar, J. M.
Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Altziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifitu.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).)

Banaketa : Txantxangorri Taldea.

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

TANBORRADAK

San Martinetan izan ditugun tanborradek jendearen partaidetza haundia izan dute aurten ere. Asteazkenean bi toki ezberdinetatik irten ziren nagusien bi tanborrada izan genituen, guztira 280 lagun inguruk parte hartu zutelarik. Toki-Ederretik Zuloak, Aritzeta, Pertxa, sukaldariak eta Udal Banda abiatu ziren eta San Martinetik, berriz, Xamatx, Arrano, Lasai-Toki eta Gazteen Bandak. San Martin, Umore-Ona, Pertxa eta Lasai-Toki martxak (Pix-Pol eta Pol-Pole kendu egin dira aurten) eta San Martin (eszenifikazioa) eta Nagasaki



jo zituzten, amaieran Seminarioan elkartuz.

Atzoko haur tanborradan, Gazteen Bandaren laguntzaz, 60 haur inguruk tanborrak eta nagusien martxa berberak ere jo zituzten, urte gutxi barru erreleborako prest izango direla iragarritz.

Jende ugari hartu du parte San Martinetako tanborradetan

ITURRI ONETIK

"Los Miserables", frontoian

Musika Eskolaren X. urteurrena ospatzeko Gabonetan egingo den *Los Miserables* muntaia Frontoian izateko ahaleginak egingo ditu Udalak. Frontoiak ez du honelako espektakuloak egiteko segurtasun baldintzarik betetzen eta Udalaren asmoa neurri horiek bete eta baimena jasotzea litzateke. Urtarrilaren 6an eskeiniko den muntaia honetan Musika Eskola eta Orfeoiko kideak eta herriko beste hainbat musikaririk hartuko dute parte.

ESAN DUTE

"Justo Garate *"La cultura del exilio vasco"*ko protagonista nagusienetako bat dugu eta Bergarako Udalak bere seme kuttuna omendu nahi izan du".

XABIER ARANBURU
Udal Museologoa
EUSKADI IRRATIA

"Istripuak eta heriotzak beti egon dira lan munduan. Nik uste dut arazo kulturala dela: formazio, responsabilidade eta sensibilidade falta dago eta hor guztiok murgilduta gaude".

J.L. GARITANO
ADEGIko Idazkari
Nagusi ordea
EUSKADI IRRATIA

"Zaila ikusten dut egun alderdi abertzaleen arteko akordioa".

JOKIN INTZA
Bergarar jeltzalea
ARGIA

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

FERNANDEZ



Oihal puskek Oihalak

San Antonio 3
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2
Tfnoa: 76 53 22

Nekazaritzaren etorkizuna

Nekazaritza, krisi orokorra jasaten ari den momentu hauetan, Eguzki kolektibo ekolojistatik itxaropen eta unitate mezua bidali nahi dugu, gure lurrraren etorkizuna eraikitzea guztion lana dela badakigulako eta honekin elkartzen gaituzten gauzak urruntzen gaituztenak baino gehiago direlako. Produktibismo kontsumitzailearen krisi momentu hauetan, esplotazioen berrordenamendurantz zabaltzen ari diren itxarobideak garapen modelu bat eztabaidatzeko aprobetxatu behar ditugu.

Beharrezkoa da nekazal modelu baten garapena, produkzio metodo ez-erasokorren mantenua baimentzen duena (medioarentzat), nekazaritza biguna delakoaren potentziazioa nekazaritza biologiko baten bidean, modu berean gure lurrraren etorkizun produktiboa ziurtatzen duena jaki sano eta kalitate onekoa.

Kalitatezko produktuen fronte erlatiboan, momentu hauetan ordeztetuzina den misio bat egiten dute salmenta zuzenean. Salmenta zuzenaren berreskuratzeak, produktu eta kontsumitzailearen arteko erlazioak berreskuratzea suposatzen du, inoiz galdu behar ez litzatekeena eta gaur egun zoritxarrez ahaztua daukaguna, orobat kontsumitzailearentzat produktu edo jakien jatorrizko zaporea berreskuratzea suposatzen du eta gaur egun merkatuan eskeintzen

direnekin gonbaratzea; merkatu honek ez du irtenbide ekonomiko bat suposatzen sektorearentzat baina bestalde aktuazio filosofia baten planteamendua ahalbideratzen du, nekazaritza ulertzeko modu edo era berri bat, ingurugiroa eta produktuen kalitatea. Gaur egun filosofia honen defentsak ekar diezazkigukeen zailtasun eta arriskuak ez zaizkigu ezkutatzeko, horregatik iniziatiba hau lagundu edo berrmatzeak ez gaitu urduri jarri behar eta birsalmenta, iruzurra, kontrol sanitarioaren falta eta gaur egun eman diren beste gauza askotan ez gara erori behar.

Honelako iniziatiba batean interesaturik dauden sektore guztiei euren funtzioa dagokie, baina batez ere nekazariei, hauek izan behar bait dira erantzuleak normatiba baten funtzionamendu eta kontrola aurrera eramateko orduan, horrela bertako produktu eta benetan baserritarrengandik sorturikoak direnen desprestijioa alde batetara uzteko (hauek gaur egun desagertzeaz daude). Esperientziarekin ohartu gara sektore honetatik kanpo dauden instituzioei lan hau uzteak zuzenean porrota ekarri digula.

Beharrezkoa da, ohizko salmenta zuzenaren potentziazioarentzat gizarte-giro hartzaile eta mesedegarri bat (sortzea).

Deba Bailarako Eguzki

Kofraixak

Osintxuko jaiak pozik igaro dituzuelakoan, eskerrak eman nahi dizkiegu laguntza eman diguten guztiei, batez ere herritarrei. Baita herriko taberna, enpresari, Bergarako Udal eta opariak eman dizkiguten Bergarako dendari guztiei ere. Datorren urtean ere aurtengo jarrera ona izango dugulakoan gaude eta beste jai zoriontsu batzuk ospatzeko prest agertzen gara.

Eskerrik beroenak guztiei.

Osintxuko Jai Batzordea.

Tiira ba!



Josu Okina



**STALINGRADO**

Ostirala: 22.30.


Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.

**SUPER MARIO BROS**

Larunbata: 17.00, 19.30.



Datorren ostiralean, hilak 24, Deba Garaiko ondarea babesteko sortu berri den Kapiroxo taldearen aurkezpena egingo da arratsaldeko 7etan UNEDen. Bertan, Bitoriano Gandia, Juantxo Madariaga, Lourdes Romero eta Jerardo Elortza (argazkian) izango dira hizlari.

Zinea

▼▼ **Joseph Vilsmaier**ek zuzenduta, 1942.eko II. Munduko Gerratean girotutako filme honek kritika onak jaso ditu. Baldintza txarrenetan dauden lau soldadu germaniarren ikuspegia azaltzen zaigu.

▼▼ Gaztetxoaren artean izugarriko arrakasta lortu duen izen bereko bideo jokoa oinarrituta, biturkin (**Bob Hoskins** eta **John Leguizamo**) dira filme fantastiko honetako protagonistak.

Deiak

▼ **Hitzaldia.** "Gripea eta katarruak" asteazkenean, hilak 22, 17etan Jubilatuetan.

▼ **Bergarako EAJ-PNVk** autobusa antolatu du hilaren 26an Alderdi Eguna joateko. Txartelak Batzokian jaso daitezke.

▼ **Mendi irteera.** Cruces-Eretza-Sodupe. Igandean, hilak 26. Izen-ematea Pol-Polen.

▼ **Margoak.** Marcelino Ruizen "Gure herria" izenburuko erakusketa Nahikari tabernan.

Farmaziak▼ **Larunbata 18:**

Camacho/Ruiz.

▼ **Igandea 19:**

Camacho/Morales.

▼ **Astelehena 20:**

Puy/Azkoaga.

▼ **Asteartea 21:**

Guallar/Español.

▼ **Asteazkena 22:**

Estella/Corcuera.

▼ **Osteguna 23:**

Mozos/Amezua.

▼ **Ostirala 24:**

Camacho/Ruiz.

Ogia▼ **Igandea 19:** Ogizun.**KIZKUR****Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

ETXAGI**Jatetxea**

Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Masterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE

Bono-taxi programa martxan

Deba Garaiko udalek hitzarmen bat sinatu dute Diputazioarekin irailaren 1ik aurrera "bono-taxi" programa garatzeko. Programa esperimental honek taxien zerbitzu publikoa erabiltzen du eta egokitu gabeko garraio kolektiboak erabiltzeko gauza ez diren minusbaliatu autonomoei zuzenduta dago, beren bizitza soziala autonomia haundiagoz gara dezaten. Programa honetan sartzen direnei dirulaguntza-bonu bat emango zaie desplazamendu pertsonalak taxi bidez egiteko. Interesatuek lehen bait lehen Udaletxera jo beharko dute.

Trikitixa Eskola

JARDUN Elkarteak antolatuta, dagoeneko zabalik dago Trikitixa Eskolako matrikula epea. Klaseak asteazken arratsaldetan eta larunat goizetan izango dira. Prezioa 2.500 pta. hileko trikitixa ikasleentzat eta 1.800 pandero ikasleentzat. Izen-ematea, JARDUN Elkartean edota 760819 telefonoan.



Lehen edizioan futbolaren hainbat aspektu landu nahi dira.

Kirol gaiak euskaratzeko beka

Euskarazko materialen eskasia dela eta

Deba Garaiko udal kirol zerbitzuek kirol materialak euskaratzeko beka kaleratu dute. Bekaren lehendabiziko edizio hau futbol arloko oinarrizko liburu bat edo liburu baten zatia euskaratzeko da eta honako atalok izan beharko ditu derrigorrez: entrenamendu teknikoa, taktikoa eta fisikoa (teoria eta hori lantzeko ariketak). Testuak, 130-150 orrialde izan beharko ditu eta bi kopia paperean eta ordenadore disketea entregatu beharko dira. Bekaren diru-kopurua 300.000

pta.koa izango da eta lana egiteko epea 4 hilabete.

Interesatuek Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura bidali beharko dituzte eskabideak, itzuliko lukeen liburuaren edo zatiaren ale bat edo fotokopia, zati baten itzulpena (5 orrialde lema batekin) eta sobre txikiago batean lema eta barruan egilearen datuak eta curriculum aurkeztuz. Testuaren interesa eta egokitasuna izango ditu kontutan adjudikazioa egiteko sortuko den Ebaluaketa Batzordeak.

SANTOS IRRATI-TB

ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

Zuek

Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA


Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

**Bazkariak
eta
afariak**

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR



65 urtetik gorakoek urriaren 30era arte izango dute aukera anbulategitik pasatzeko.

Gripearen aurkako kanpaina

65 urtetik gorakoei zuzenduta, astelehenean hasi zen

Astelehenean eman zitzaion hasiera Bergarako anbulategian 65 urtetik gorakoei zuzendutako gripearen aurkako aurtengo kanpainari. Bronkitisa edota bihotzetik, giltzurrun edota gibekeko gaixotasunaren bat duten 65 urtetik behar-koek ere kanpainan dohain parte hartu ahal izango dute, aurrez medikuaren bolantea aurkeztu beharko dutela.

Jazko datuen arabera, 65 urtetik gorako 1000 pertsona inguruk hartu zuen parte iaz, zifra baxua

erizaintza arduradunen esanetan; "dagoen jendearen % 50a bakarrik, inguruko baxuenetakoa. Gutxienez % 80ra iristea gustatuko litzai-guke".

Kanpaina urriaren 30era arte burutuko da Anbulategian astean zehar, goizeko 9.30etatik 12.30etara. Horrez gain, hainbat auzotara ere irteerak egingo dira: Labegaraieta (urriak 4, goizeko 11etan), Mizpirualde (urriak 5, goizeko 11etan Zabalotegi eta ingurukoentzat) eta Osintxu (urriak 7, 12etan).

Institutoaren oharra

Ikasturte berriaren aurkezpena ostiralean, hilak 24, egingo da. Goizeko 9etan lehen mailako ikasleak, 9^{ter}erdietan 2.ekoak, 10 etan 3.ekoak eta 10.30etan UBIkoak joan beharko dira.

Kikaundi Ludoteka

Astelehenean, hilak 20, Kikaundi Ludotekak klaseak emateari ekingo dio: 5.30etatik 6.30etara eskolaurrea eta O.H.O. ko lehen mailako hurrei eta 6.30etatik 7.30etara 2. mailatik 6.era bitarteko ikasleei. Interesatuak 760517 telefonora dei dezakete.

Euskaltegian matrikula zabalik

Bergarako Udal Euskaltegiak matrikula epea irailaren 21era arte zabalik izango du. Ikastaro berria hasi orduko Euskaltegia, Bidekurutzetako lokala utzi eta San Migel Patronatora pasako da.

Solfeo klaseak

Astelehenean, hilak 20, solfeoko klaseak hasiko dira Musika Eskolan 17.30etan.

Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

Gaspar
Jatetxea, Txokolategia,
Self Service-a
Barrenkale 31 Tfnoa: 76 20 02 BERGARA

Merzeria - Lenzeria
D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

**LASA
JATETXEA**
Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

Ahots berriak lortu nahian, kanpaina bati ekin dio Bergarako Orfeoiak

Orfeoiko kide izan nahi duen edonor, datorren ostegunean, hilak 23, Zabalotegiko dorrepeko aretoan egingo den entsaiura ager daiteke

Bergarako Orfeoia ahots berrien bila dabil. Horregatik dei bat luzatu nahi die musika maite eta kantatzea gustuko duten bergarar guztiei. Orfeoiko kide izateko ez da beharrezkoa musika ikasketarik izatea, ezta solfeorik jakitea ere, Orfeoiko Zuzendaritza Batzordeak eskatzen duen gauza bakarra musika gustuko izatea eta asteen bi aldiz egiten diren entsaiuetara (astearte eta ostegunetan gaueko 9etatik 10etara bitartean) maiztasunez agertzea.

Orfeoia dagoeneko kaptazio kanpainari ekin dio eta 140 gutun inguru banatu ditu zenbait herritarren artean. Hala ere, Orfeoiko Zuzendaritza Batzordeko kide batek argitu duen moduan: "ezagutzen ditugun bergarar batzuen etxetara banatu ditugu kartak, baina horrek ez du esan nahi gutun hori jasotzen ez duten pertsonen Orfeoiko kide izan ez daitezkeenik. Beraz, norbaitek interesa badu, datorren ostegunean, gaueko 9etan, Zabalotegiko dorrepeko lokalean

egingo den entsaiu orokorrean parte hartzeko ateak zabalduko ditugu. Guztiak gonbidatuta daude".

Gizonezko ahotsak

Bere sorreratik Orfeoia Euskal Herri eta baita Estatuko hainbat antzokitan ibilia da. Azken urtee-

tan, garai batean izandako ospea berreskuratzeko ahaleginetan aritza. Iaz, David Azurza musikari tolosarra kontratatu zen zuzendari lanak egiteko. 60 kidez osatutako abesbatza 40 inguru emakumezkoak dira eta 20 gizonezkoak. Kanpaina honekin, batez ere gizonezkoen ahots berriak lortu nahi dira.



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibarteko
espezialitatea

**OSTIRALETAN GOIZEKO
9ETATIK ZABALIK**

Barrenlale 16, ☎ 76 20 62

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparetek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32

☎ 76 11 50

MURINONDO

San Blas ermita ondoan

Murinondoko auzotarrak arazoak izaten zituzten batzarrak egiteko edo beste edozertarako elkartu beharra izaten zuten. Ekintza hauetarako ez zegoen inolako tokirik auzoan, eta horrela pentsatu zuten elkartea sortzea. Elkar-te hau beraz, auzoan eta horrelakoak egiteko asmoaz gain, auzotarrak elkartzeko asmoarekin ere sortu zen.

Bertako bazkide eta juntako kide diren Jon Osa eta Jose Maria Urriategik azaldu digutenez, orain elkar-tea kokatuta dagoen lokala, aspaldi batean auzoko eskola egon zen tokia dugu. Eskola zaharraz gain, parean maisuaren etxea zegoen. Auzoko eskola hau itxi zenean, etxe biak udaletxearen eskuetan gelditu ziren. Maisuaren etxea zena subasta batean saldu zen, eta orain etxe partikular bat dago hemen. Eskola zaharra berri- z, udalak teilatua eta

horrelakoak konpondu eta auzoaren eskuetan gelditu zen elkar-tea egiteko elkar-teak. Honela 1988.eko ekainaren 5 ean ireki zituen bere ateak.

Garai hartan elkar-teko bazkide guztiak auzokoak edo auzoan jaiokoak ziren, baina gaur egun kaleko jendea ere badago Murinondo auzoko elkar-te honetan bazkide. Bazkide guztiak 28 ko kopurua betetzen dute. Ez dago emakumerik bazkide bezala, baina ez onartzen ez delako, aukera berdina baitituzte Murinondo elkar-tean. Dena den, bazkideen batzbesteko



Murinondo elkar-tea 1988an inauguratu zuten auzotarrak.

adina 45 urtekoa da. Baina elkar-te honetan bada gainera berezitasun bat: bazkideen emazteek ere elkar-teko giltza dute, sarriera librea bait dute.

Diru kontutan sartuaz, elkar-te honetako bazkideek hilero 500 pztako

kuota ordaintzen dute. Kuota hau orain 800 pztara igo behar dute, orainarte ordaintzen ari direna gutxi iruditzen bait zaie.

Murinondo elkar-tean, batzbestek, 240.000 pztako kaja batzen dute urtean zehar jan edanarekin. Falta kontutan nahiko ondo dabilta, %1 eta %2 ko faltan artean aritzen bait dira.

Sukaldari abilak ere baditugu elkar-te honetan. Honen adibide Ignacio Olabarriaren izena eman digute.

Ainboa Lete

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1988.eko ekainaren 5ean.
BAZKIDEAK: 28.
HELBIDEA: Murinondo auzoa.
PRESIDENTEA: Ignacio Olabarria.
ELKARTEAREN EGUNA: ekainak 5.
URTEKO KUOTA: 6.000 pzt.

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
 Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA

ayastury

Barrenkale 30
 Tfnoa: 76 11 31

Jantzidenda

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
 Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

SAN MARTINAK



● **Bertso jaialdi** dotorea eskaini zuten joan zen larunbatean Aitor Sarriegi, Estitxu Arozena, Iratxe Ibarra, Igor Elorza, Ion Maia eta Jesus Mari Irazu bertsolari gazteek. JARDUN elkarteak Mariaren Lagundian antolatutako jaialdira 150 bat lagun agertu ziren.

Abankargazko armekin Galeper Tiraketa

Asier Linazisoro bergararrak bigarren postua lortu zuen joan zen larunbatean Gorrako kantina inguruan jokatu zen Aintzinako Abankargazko armekin egin zen Galeper Tiraketan. Programan Plater Tiraketa izango zela iragarrita bazegoen ere, azkenean galeper tiraketa egin zen. Lehenengo postua Gurmendi donostiarrak lortu zuen eta hirugarren saria, berriz, Pastor-rek eraman zuen. 18 bat lagun aritu ziren lehian.



● **XX. Aire Libreko Pintura Lehiaketara** aurkeztutako 31 margolariek maila bikaina erakutsi zuten joan zen igandean. Saritutakoen artean, bi bergarar: Mari Paz Alustiza eta Antxon Arrillaga. Lehenengo saria, Javier Soto ordiziarrak eraman zuen; bigarrena, Mari Paz Alustizak; hirugarrena, Angel Goenaga eibartarrak eta laugarrena, berriz, Jose Ignacio Treku debarrak. Bergarar onenaren saria Antxon Arrillagak jaso zuen. Argazkian, epai-mahaiak, Jose Maria Beitia, Juan Jose Altuna, Jose Kareaga, Abdon Juaristi eta Paulino Larrañagak, saritutako pintoreak.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE



Bergarako Xake Taldeak antolatutako Xake Astearen barruan hainbat ekitaldi burutu dira astean zehar (hitzaldiak...). Astebukaerari jarraipena izango du xakeari eskianitako asteak.

XAKE ASTEA

OSTIRALA 17:

- Hitzaldia: "Leyes del ajedrez e interpretaciones reglamentarias y desarrollo de juego". M.A. Muela eta L. Iruretagoyena. 18:00. Kultur Etxea.
- Deba bailarako taldekako finala. 19:00.

LARUNBATA 18:

- I. Bergara Hiria Xake Txapelketa. 10:00. Mariaren Lagundiko Aretoa.

IGANDEA 19:

- Bilerak teknikoak: "Los monitores de ajedrez". N. Lococo, A. Albaina, J. Ezpeleta eta A. Ablanado. 09:00.
- Bergara Hiria Xake Txapelketa Irekia. 10:00.
- Bukaera ekitaldia eta sari banaketa. 19:00.



Justo Garateren idazkiak eta autobiografia jasotzen dituen liburua aurkeztuko da gaur

"Un crítico en las Quimbambas. Autobiografía y escritos", Justo Garate bergarar jakintsuaren liburuaren aurkezpena aurkeztuko da

gaur arratsaldeko 7.30etan Kultur Etxean.

Bergarako Udalaren eskutik argitaratu den liburuaren aurkezpen ekitaldian, Victoriano Ga-

llastegi Bergarako alkateta, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko kultura sortu eta zabaltzeko arduraduna den Eusebio Larrañaga, obraren argitalpenaren zuzendaria izan den Jose Angel Asuncion eta Elias Amezaga idazlea izango dira.

Aipatutako liburua hiru atal ezberdinetan zatituta dago. Lehenengoa, Justo Garateren autobiografia jasotzen du. Bertan, bere bizitzako oroitzapenak aurkezten dizkigu Justo Garatek, jaioturretatik hasi eta 1992. urtera bitartean, Bergara eta Argentinako Tandil herriaren artean igarotako gaztaroa, Bergarako Erret Mintegian Aita Dominikotarrek zuten ikastetxean burututako ikasketen garaia, Eu-

ropako Unibertsitate ospetsu desberdinetan eginiko medikuntza ikasketen urteak, Gerra Zibila eta Argentinan aurrera eramandako lana gogora ekarriz.

Bigarrenak, berak Ameriketara idatzi zituen, eta horregatik Euskal Herrian oso ezagunak ez diren, artikulak eta ikerlanak biltzen ditu: Etnografia, Antropologia eta Medikuntza Deontologiari buruzkoak. Azken atala Garateren bibliografiak osatzen du.

Justo Garate 1900 urtean jaio zen eta, bestekak beste, egun hauetan sortu zeneko 75. urtemuga betetzen duen Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kidea izan zen gaztetan.

Mari Carmen
ARRAINDEGIA

Arrain freskoak,
izoztuak eta mariskoak

Kruz Gallastegi
☎ 76 15 90 / 76 40 73

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA



Taberna Kafetegia

EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA



GIARTZU

GIMNASIOA

Boni Laskurain, 3 behea
 ☎ 76 35 71
 BERGARA

- AEROBIKA
- MANTENIMENDUA
- MUSKULAZIOA
- KARATEA
- NIM-JITSUA

ORDUTEGIA:
 7:30-13:00 / 14:30-22:00

LARUNBATA 18

- 09:30:** Deba Garai eta Beheko **barazki, fruitu, lora eta gazten lehiaketa**, Seminarioko patioan.
- 13:00:** **Gorrotxategi eta Egileor** bertsolarien saioa Seminarioko patioan. Ondoren lehiaketako sari banaketa.
- 16:30:** **Haurrentzako jokuak** Seminarioko patioan eta ondoren, **bonba japoniarrak**.
- 17:00:** I. Azeri ehiza. **Larrialdian irratizko aurkikuntza saioa** Surra Irratizaleen Elkarteak antolatuta. Izen ematea Beheko Estazioan 15:00etatik 17:00etara bitartean.
- 18:00:** IV. San Martin **Herri Krossa** herriko kaleetatik zehar.
- 18:30:** **Moises Azpiazuren oroimengia**. Bikoteen Dantza Askatuko IX. txapelketa, Seminarioko patioan.
- 19:30:** Haurrentzako **Globo aerostatikoa** Ipinztako zelaian

Tabernarien saiakera ustela

Azken egunetan asko hitz egin da herriko tabernari batzuk San Martinetarako prestatzen ari ziren jai egitarauaren inguruan. Dozena bat tabernari inguruk ia prest zituzten rock jaialdi eta beste ekitaldi batzuk ostiral eta larunbaterako. Baina Udalak, egin beharreko aseguruak eta beste gai batzuk ondo lotu barik zituztela eta, ez die tabernariei baimenik eman. Tabernari batek zera adierazi dio BERRIGARAr: "haserre gaude Udalaren erabakiarekin, aitzakiak eta trabak besterik ez dizkigu jarri gure egitaraua aurrera atera ahal izateko".



Lazaro, Blanca, Jose Miguel eta Jesus Sustaeta anai arrebak.

Jose Maria Eguren eta Jose Miguel Sustaeta omenduak

Ostegunean, San Martin eguna, omenaldia eskaini zitzaion San Pedroko parrokiari izandako Meza Nagusian Jose Maria Eguren eta Jose Miguel Sustaeta apaizei. Jose Maria Eguren, azken 15 urteetan San Pedroko parrokoa izandakoa, Ordiziara destinatu berri du Jose Maria Setien Gipuzkoako gotzaiak. Jose Maria Eguren bergararrak 12 urterekin ekin zien abade ikasketei Bergarako Erret Mintegian. Ondoren Saturrarán, Gasteiz eta Donostian ikasi zuen eta 1956. urtean apaiz izendatu zuten. San Prudentzio, Antzuola eta San Pedron lan egin ondoren, Ordiziara destinatu dute. Bestalde, 1919an Bergaran jaio zen Jose Maria Sustaetak, 50 urte egin ditu apaizgintzan. Gaur egun Valentzian bizi da.

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

ARDATZA
Brikolaketa
Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Bukatu dira oporrak eta guraso eta seme-alabak hasi dira dardarka. Lehenengoak eskola hasi eta berehala hasiko dira liburutan eta beste gauza batzuetan dirua gastatzen eta besteak, seme-alabak alegia, berriz ere kalera irtetzeko txirrinaren zai izango dira. Hurrengo bi orrietan herriak eskola mailan ze aukera eskeintzen dituen jakiteaz gain, liburutan gurasoek zenbat ordainduko duten jakiteko aukera izango duzue.

Eskolara!!

Eskolaurreko haurrak eskolan hasi diren bitartean, OHokoak datorren astelehenean ekingo diote

Herrian eskolaurrea eta O.H.O. ikasketak burutzeko aukera ezin hobea dago. Guztira 6 eskola daude; horien artean bi Ubera eta Angiozarren. Ikasle gehien batzen dituen ikastetxea, 894 ikas-

lekin, Aranzadi ikastola da. Eskolaurrean, 3 urtetatik 5. urtera bitartean 190 ikasle ditu eta 1go mailatik 5. enera bitartean 391 eta, 6. mailatik 8. enera bitartean 313 ikasle biltzen dira.

Aranzadin eskolaurre-

ko ikasleek dagoeneko hasi dituzte klaseak eta gainontzekoek astelehenetik aurrera hasiko dira. Ikastetxe honek hizkuntzari dagokionez D eredu du ezarrita eta horren arabera klase guztiak euskaraz ematen dituzte. Iaz

Aranzadi ikastola sare pribatura pasa zen eta horren ondorioz aurtengorako kuotak 2000 pztatara igo dira.

Matrikula berriei dagokionez, aurten eskolaurreko lehen urtea egiteko 70 umek eman dute izena. Ikasle kopuruari begiratu, herriko bigarren ikastetxerik garrantzitsuena Mariaren Lagundia da.

Ikastetxe honetan eskolaurrea, O.H.O., I.E.E. eta Lanbide Heziketaren 2. zikloa burutzeko aukera dago. Guztira, Mariaren Lagundian 700 ikasle inguru daude eta ikasle berriei dagokionez aurten 50 ikasle berri matrikulatu dira. Hizkuntzari begiratu, Ikastetxe honetan, 3. mailara arte D eredu eskeintzen dute eta 3. mailatik aurrera B (asignatura batzuk euskaraz eta beste batzuk erderaz) eta D ereduak daukete martxan.

Matrikulari dagokionez eskolaurreko ikasleek 1000 pza inguru ordaindu behar dute eta gainontzeko ikasleentzako matrikula 2.000 pztatakoa izango da.

MUJIKA
 Burdinaki denda
 Bidekurutzeta 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

SURPE
 Taberna
 Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
 ANTZUOLA

AGOITZ
 Tapizdenda
 San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58
 BERGARA

Aldoka
Maldoka
TABERNA
 Kruz Gallastegi, BERGARA

 **DEBA**
GARAIA
 INMUEBLE ETA FINANTZA
 AGENTZIA
 Arrasate / Bergara / Elgoibar
 T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80
 ☎ 76 06 37



Opor egunak amaitu zaizkie eskolaurreko eta OHoko ikasleei.

San Martin Agirre ikastetxea eskolaurre eta O.H.Oko ikasketak dohainik burutzeko aukera ematen duen bakarra da, publikoa da eta. Aurten 270 ikasle inguru dabilta bertan eta aurtengorako 25 ikasle berri matrikulatu dira. B eredua da nagusi eskolaurretik hasi eta 8. mailara arte. Ikastetxe honetan A eredua ere badago (erderaz ikasi eta euskara asignatura) baina A eremuan kanpotik etorritako ikasleak ari dira.

Bestalde datorren urterako, San Martinekoek

D eredua jartzeko asmoa dute.

Bi auzo eskola

Herrian bi auzo eskola ditugu. Bata Angiozarren eta bestea Uberan. Angiozarko eskolan 3 urtetik 8ra bitarteko 12 ikasle daude. Egun osorako irakasle bat dute eta egun erdirako beste bat. Uberan, berriz, 3 urtetik 10 urtera bitarteko 6 ikasle ari dira ikasten. Irakasleei dagokionez Uberako eskolan egun osorako irakasle bat dago eta beste

batek astero 2 egun eta erdi egiten ditu lan.

Bi auzo eskola horietan D eredua bakarrik dago eta matrikula debalde da. Auzo eskoletan adin ezberdineko ikasleak klase berdinean daude eta bertako irakasle batek komentatu digunez "*adin ezberdineko ikasleak izatean klaseak puzzle bat dirudi, baina ikasle bakoitzari bere adinari dagokion ikasgaia eskeintzen diogu eta adinaren arabera taldeka jartzen ditugu. Ekintza zehatz bat egiterako orduan*

(gimnasia, txangoak, ipuin kontaketa) guztiok batzen gara, baina bestela bakoitzak bere txokoa eta lana du".

Herrian gormutuentzako eskola berezia ere badago, Arans Gui, eta bertan 3 urtetatik 18ra bitarteko 30 ikasle daude eta horiei eskola emateko 7 irakasle daude.

Liburutan dirua barra-barra

Herriko ikasleek testu liburuak erosteko Etxeparera, Idatzira eta Peñal-

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Teilerian, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa

GANBARA

**Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafa kremarekin**

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

**T
B
E
R
N
A**

iRUDI

**Erlojudenda
Bitxitegia**

San Pedro 11
☎ 76 51 65

bara jo behar dute. San Martin eta Aranzadi ikastolako ikasleek Etxeparen erosten dituzte beren liburuak eta Mariaren Lagundikoek eskolaurrekoak Etxeparen erosten dituzte eta 4.enetik aurrerako liburuak Idatzi eta Peñalban.

Liburuen balioari dagokionez Aranzadi ikastolako gurasoek, lehen mailatik 3.enera bitartean batz best 3000 mila pzta ordaindu beharko dituzte eta 4.enetik 8.enera bitartean batz best 4 mila pzta.

San Martin Agirre eskolako gurasoek liburutant diru gehiago ordaindu beharra izango dute. Bertako gurasoek lehen mailatik 3.enera bitartean batz best 10 mila pzta ordaindu beharko dute eta 4.enetik 8.enera bitartean, aldiz, batz best 9 mila pzta ordainduko dute.

Seme-alabak Mariaren Lagundian dituzten gurasoek lehen mailatik 4.enera bitartean batz best 5 mila pzta utziko dituzte liburutant eta 4. mailatik 8. mailara bitartean daudenez batz bes-



Angiozarko eta Uberako auzo eskola bakunetan adin ezberdinetako haurrek irakasle bakarra dute. Argazkian, Angiozarko eskolako haurrak.

te 9 mila pzta ordaindu beharko dute.

Liburu dendetako langileek esan digutenez "liburuak garestiak dira, baina guk testo liburuekin ez dugu diru gehiegirik ateratzen. Gainera liburu horiek saltzen ez

badira, burrengo urterako gorde behar ditugu, ezin direlako soberan gelditutako liburuak bueltatu".

Baina ikasleak liburuak erostera joaten direnean karpetak, boligrafoak, harkatzak ea... erosi

behar izaten dituzte eta liburudendetan adierazi digutenez "ezin da egin ikasle batek batz best zenbat gastatzen duen eskola materialean, baina gebienek 2 mila pzttik gorako gastua egiten dute".

IKASI AKADEMIA

1993-94 IKASTURTEA

KLASE PARTIKULARRAK

- OHO • BBB • UBI •
- LH • REM •
- GRADUATU**
- ESKOLARRA**
- SARRERA**
- IKASTAROAK**
- MATEMATIKAK • FISIKA •
- KIMIKA • KONTABILITATEA •
- EUSKARA • LATINA •
- GREKERA • LENGUAIA...

HIZKUNTZ DEPARTAMENTUA

INGELESA
ALEMANA
FRANTSESA

IRALKASLE NATIBOAK
Hizkuntza Eskola Ofizialeko eta nazioarteko beste titulu batzuetarako azterketen prestaketa.
ORDUTEGIA:
Goiz, Artsalde eta guez.
HAUR, GAZTE eta HELDUENTZAT.



IKASI

Matxiategi 34, 1.C ☎ 76 40 33 BERGARA
Kalebarren 22, 1. ☎ 76 20 59 SORALUZE

LITERATUR

Tailerra

Irailaren 24ra arte
MATRIKULA ZABALIK

Urritik abendura ostegunetan 5.30etatik 7.30etara

Prezioa:
JARDUNeko bazkideentzat 4.500 pzta
Gainontzekoentzat 5.000 pzta

Izen ematea
JARDUN ELKARTEA
Masterreka 13. ☎ 76 08 19

DANTZA

**Mangoa, Paso Doblea,
Rock & rolla, Manboa ...**

Ikastaroa
larunbat arratsaldeetan
urrian eta azaroan

Matrikula epea irailaren 28ra arte

Prezioa:
JARDUNeko bazkideentzat 4.500 pzta
Gainontzekoentzat 5.000 pzta

Izen ematea
JARDUN ELKARTEA
Masterreka 13. ☎ 76 08 19

Antolatzailea:

Laguntzaileak:



**BERGARAKO UDALA
ETA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

FS
oto istema

Apbéniz

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteletako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

Kantatzea gustatzen zaizu?



Enrique Nieto
28 urte, langilea

Bai, asko gustatzen zait. Abesbatza baten abestu? Ez daukat denborarik. Agian musika talde bateko abeslari...




Mari Sol Gómez
40 urte, etxekoandrea

Gustatu bai, baina oso txarra naiz. Baina beharbada animatuko nintzateke abesbatzaren baten abesteko...



Saray Leal
13 urte, ikaslea

Ez, ez zait gustatzen. Gainera nahiko txarto egiten dut. Dantzan hobeto.



Xabier Momoitio
33 urte, langilea

Bakarrik parrandan nagoenean, bestela makala naiz. Entzumena ez daukat oso fina...

**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

IZARRHOTZ

IZOKIAK

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

INGELESA eta FRANTZESA


**MATRIKULA
ZABALIK**

KURTSO HASIERA:
Irailak 28

- Maila guztiak
- Azterketen prestakuntza
- Ikastaro trinkoak
- Umeak, gazteak eta helduak



INFORMAZIOA:
Begarako UNED
(3. pisua)
☎ 76 06 87





Elkarrizketaren bidea

Ekintza sinbolikoak inoiz gure herrian izan duten punturik gorenena iritsi direnean, aztertu beharrekoa izan beharko litzateke Euskal Herrian azken urteetan bakea lortzeko pausurik eman den ala ez. Aurreko asteburuan egindako manifestazioak eta bihar burutuko denak herri honetan ematen den gatazka ikuspuntu oso ezberdinetatik aztertzen dela erakusten digute. Hurrengo egunetan gainera, zifra gerrate batean sartuko gara, eta batzuentzat garaipena dena ez da besteentzat porrota izango.

Baina azken finean arazo honi irtenbide bat emateko saiakera gehiegi ez dira egin. Eta egin direnean ez da konponbiderik lortu.

Gaur egun badago Euskal gatazka elkarrizketaren bidez konpontzeko bidea zabaldu duen talde bat: Elkarrizketaren zuzen. Baina horrelakoetan beti gertatzen den bezala, orain ere biolentziaren aurrean anbiguitatea erakusten duela atxekitu diote zenbaitek. Ez dut ikusten nik indarkeriaren aurkako jarrera une honetan ematen diren indarkeriak salatzea anbiguitatea erakusten duenik. Anbiguitate gehiago erakusten dute E.T.A.ren ekintza bat salatu, baina preso bat jipoitzen dutenean ezer esaten ez dutenek.

Gainera, munduko beste herrialde batzuetan elkarrizketak bakea lortzera eramaten badu, zergatik ez dauka hemen berdin izan beharrik. Ez da izango elkarrizketa horien ondorioz lortu daitekeen bakea batzuen gustokoa ez dela?

Mikel Lizarralde



San Martingo feria

San Martingo ferian barazki, fruta, gazta eta lora lehiaketa izango denez, antolatzaileen helburu garrantzitsuena iazko feriarekin elkartu eta konparatuz gauzak hobetzea izango da. Produktu eta ekoizkinen jatorria eta kalitatea bereiztuz, ekoizleek betetzen dituzten zereginak babestea izango da bai epaimahai eta batez ere antolatzaileen asmorik nagusiena. Gure landalurretako produktioa berezia denez, landetxe ingururutan ekoiztu eta uztaldiko onena izaten da aukeratua feria egunerako, kontsumitzailearengana urreratuz maila altua bermatzeko bide egokiena izanik.

Era honetako feriak, gure gizartean gaurdaino bizi izan diren kale eta baserriaren arteko elkarlana azpimarratzeko ezinbestekotzat jotzen ditugu. Urtean zehar azokara jotzen duen erosleari garestiak iruditzen zaizkio salgai jarritako barazki, fruitu eta baserriko emaitzak eta behin baino gehiagotan somatu izan ditugu eztabaidan prezioa nola jaitsieraziko. Azken finean, kaleak ez ditu baserriak berarekin duen zama, lana eta zenbaitetan, ezina, aintzakotzat hartzen. Askotan elkarrizketak emanaz bizi izan diren arren baserria eta kalea, gauzak aldatzen ari dira guztion onerako.

Larunbatean izango dugun feria egunaren bitartez, bake giroa gozatzeko dagoen egokierak on egingo dio baserriarri eta, zer esanik ez, bertaratzen den kaletarrari. Nekazal mundutik gertu behar dugu hazi, hezi eta bizi. Biak behar ditugu.

Joseba Aizpurua

FANCY
 GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

IZADI
 Santiveri PILI GISASOLA
 Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua
 Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

Maxim's
 76 20 61

LONBIDE OINETAKOAK
 Bidekurutzeta, 5 76 10 57 BERGARA

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

LARRAÑAGA eta ZUBIA

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak, esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594



LILURA

EDERTZE INSTITUTUA

Bidekurutzeta, 7
☎ 76 31 71
BERGARA

PINTURA

GURE HERRIA
Marcelino Ruiz

ERAKUSKETA

NAHIKARI

KAFE-TABERNA

Masterreka 20 ☎ 76 57 71 BERGARA



□ Berriz ere lekuz aldatua

Udal Euskaltea berriz ere tokiz aldatu da aste honetan. Irizar Jauregitik Bidekurutzetara pasa ondoren, orain San Migel Patronatora (Zabalotegiko Dorrea eta Mizpirualde artean) joan zaizkigu Euskaltegiko irakasle eta ikasleak. Astelehena bertan ekin zioten traste aldaketari (argazkian) eta dagoeneko prest dira klaseekin hasteko. Matrikula epea zabalik da eta ahalik eta jende gehien animatzea besterik ez da falta...



□ 25 urte irakaskuntzan

Pauli Muro aspalditik Bergaran bizi den donostiarrak zilarrezko eztaiak bete ditu irakaskuntzan. Orain 25 urte Bergarara, Mariaren Lagundira etorri zenetik, Burgoseko atzeratuen zentru batetan izan da lanean eta orain Zumarragan ATZEGIk duen atzeratuen pisu babestu batean eta Bergarako San Martin ikastetxean erlijio klaseak ematen ari da. Larunbatean familiartekoeekin eta monjekin meza entzun ondoren, bazkaria egin zuten zilarrezko eztaiak ospatzeko. Zorionak!!

MEMESA

IRIMO

SKF

platinum

Arrasate 79 42 22

Artxabaleta




□ **Pelotariei omenaldia**

Igandean Bergarako futbol talde nagusiak Eskoriatzaren aurka jokatu zuen partiduaren atarian, Bergara K.E.k **IKer Muruamendiaraz** eta **Igor Gutierrez** pelotari gazteak omendu zituen. Aurreko denboraldian, bikote honek Euskadiko txapelketa eskuratu zuen eta Gipuzkoakoan txapeldunorde izan ziren, Ikerrek, bere aldetik, Elgetako 4 t'erdiko txapelketako kadete finala ere eskuratu zuela. Igandean Iñigo Zaitegi elkarteko presidente eta Gutierrez pelota sekziko arduradunen eskutik, plaka bana jaso zuten. Ea hurrengo denboraldiaren hasieran ere Agorrosinen ikusten ditugun...

□ **Maketa berria**

Angiolillo musika talde bergararrak bere bigarren maketa kaleratu berri du. Oraingo honetan Mutxi (ahotsa eta kitarra), Torretxo (kitarra eta ahotsa), Iñigo (baxua) eta Estebanek (bateria) *rock & rolla*, *hardcorea* eta *punka* nahasten dituzte bertan aurki ditzakegun 13 abestietan. Dagoeneko maketa salgai duzue ohizko tabernetan 500 pta.tan; Angiolilloekin San Martinetan dantzan egiteko aitzaki aproposa duzue...




Zertan dibardute ba?

SANTOS/EGUREN



Dani Santos eta Alberto Eguren Pol-Pol Argazki Taldeko kideek lehen eta 3. sariak lortu berri dituzte Gasteizeko *Hiru Haundiak* izeneko mendiko argazki lehiaketan.

SABIN AZKUE



Azken 6 urteotan Angiozarreko elizako parroko izan den 61 urteko oiartzuar hau Soralarera bidali du Gipuzkoako Gotzaiak. Esteban Munilla zumarragarrik ordezkatu du.

ESPOLON



School of English BERGARA

Ibargararai, 31
☎ 76 03 53

93/94 IKASTURTEA. MATRIKULA ZABALIK.

IKASLE ZAHAR eta BERRIENTZAKO IKASTAROAK.

- Haur, gazte eta helduentzat .
- Enpresatarako ikastaro bereziak.
- Goiz eta arratsaldez.

ORDUTEGIA: 10:00-12:30 eta 16:00-19:00.

KURTSO HASIERA: URRIAK 4



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

Umore giroan

Pelota partiduak zeruan

Bi plaentxiar lagun aiek oso pelotazaliak ziran. Baiñan il zan bat, eta orduan bestian arduria zan ia zeruan pelotalekurik izango ete zan. Zalantza onetan, egun baten agertu ei jakon bere lagunaren espiritua. Eta ondiok Plaentxian bizi zanak beriala galdeztzen detsa:

- I, ta zeru eder orretan badaok pelota lekuri?

- Bai orixe! Pelota-leku zoragarriak dauaz eta partidu ederrak be organizatzen jitsuaguz. An gaitza dok tantua egitia. Aiñ biurtu gaitzuk ajillak!, aiñ gauaz danian! ezeze..., orregaitxi, gure partiduetan tantua eitxia dok gauza zailla.

- Ene, Ori dok poza emoten destana.

Letrarik ez

Il zan plaentxiar ugezaba bat. Etorri dira funerarixakoak. Aukeratu ze ben kaja eta esaten detsa enpleatuak alargunari:

- Letrarik ipiñiko detsau kajan?

- Ene, orixe ez! -diño alargunak. Orretxek il dabe!. Letrarik pagau ezin eta infarto bat etorri jakon eta ilda gertatu zan. Ez ipiñi letrarik, orretxek il dabe-ta!!

Pedro Zelaia

ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Barruko igerilekuak, 20 urte bergararren zerbitzura.

GAUR ARRATSALDEAN BERGARAN "I. LINACISORO TXAPELKETA"

Gaur arratsaldeko 5etan, Bergarako igerileku irekian Industrias Linacisoro I. Igeri Txapelketa jokatu da. Txapelketa honen helburua 12 urtez azpiko haurren artean igeritarako zaletasuna bultzatzea da. 50 eta 100 m.ko probak jokatu dira lau estiloetan eta igerilari federatuek zein federatugabeek parte hartu ahal izango dute.

Bertara jendea animatzeko ahalginik asko egin dute antolatzaileek: igerilari eta zaleak doan sartu ahal izango dira igerilekura, proba amaitzen duten guztiek askari eder

baterako gonbitea jasoko dute eta proba bakoitzeko hiru lehenengoek, mutiletan zein nesketan, urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak izango dituzte. Horretaz gainera, lehen sailkatzen den taldeak ere trofeo eder bat jasoko du.

Benetan txalogarria da bergararren inizatiba hau, izan ere, halaxe bultzatzen baita igeriketa haurretan.

J. Bikuña. 1973-IX-15.
La Voz de España. Kirol sailean.

ESKUALDEKO PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Psikologia gabinetea. BERGARA)



KONTSULTA, DIAGNOSTIKOA, TRATAMENDUA (haur, gaztetxo eta helduentzako)

LOGOPEDIA-FONIATRIA

- **AHOTS, HIZKETA eta LENGOAIA ZAILTASUNEN BIRGAITZEA**
- **DISFONIAK. Birgaitze eta prebentzioa: noduloak, polipoak, edemak, ahotsa behartzearen ondorioak, fonazio eta arnasketa kaltetuak.**
- **DISLALIAK: ahoskatze arazoak.**

• **DISLEXIAK**

• **TOTELTASUNAK**


- **AFASIEN eboluzio eta tratamendua: kalte kraneoenzefalikoaren ondorioak, burmuin zainen gaitzak, encefalitiak.**
- **DISLALIAK: ahoskatze arazoak**

PSIKOMOTRIZITATEA

ESKOLA ATZERAPENERAKO LAGUNTZAK
PSIKOLOGIA KLINIKOA

Herri Lagunak (Aranzadi Ikastolako patioetik sarrera). ☎ 76 14 80.
Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal.

BONOFOTOA



M. A. Elkorobereizbar



ROSA MARI BELASTEGI

ROSA MARI BELASTEGIk jaso du aste honetan
BONOFOTOko saria.

Azken FONOFOTOko argazkian agertzen zen eliza **Elosuko San Andres** eliza zen. **Rosa Marik** jarri zuen erantzun zuzena eta berarentzat BONOFOTOko **10.000** pztak.

ZORIONAK Rosa Mariri eta besteek segi jokatzen!!

Aurten betetzen dira 75 urte Euskaltzaindia sortu zela eta argazkiko plaka hau sortzaileetako baten omenez jarri zen.

Zein da pertsonaia hori eta zein kaletan dago plaka?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

UNED-BERGARA

IKASTETXE ELKARTUA

1993/94 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEAK

EPEAK

ARGIBIDEAK

BULEGO ORDUAK

LEHENENGO EPEA:

Irailaren 16tik
urriaren 15era.

BIGARREN EPEA:

Urriaren 15etik
30era.

UNED-BERGARA Ikastetxe Elkartuko Idazkaritza.

San Martin Plaza.
69 Postakutxatila
20570 BERGARA
☎ 76 13 42 / 76 13 43 / 76 29 62

Asteartetik ostiralera:

10:00-12:40.
17:30-20:30.

Larunbatetan:

9:00-12:00.
(urritik aurrera).

92-93 IKASTURTEA
San Martin plaza
BERGARA

UNED

IKASTAROAK

EUSKAL KULTUR
DEPARTAMENDUA
☎ 76 13 42 / 76 13 43

E.G.A.

MATRIKULA EPEAK:

Irailaren 7tik 30era.

TASAK: 25.500 pzta.

NOIZ: Ostegun eta astezkenetan,
18:30etatik 21:30etara. Larunbatetan,
9etatik 13etara.

SAKONTZE MAILA I eta II

MATRIKULA EPEAK:

Irailaren 7tik 30era.

TASAK: 31.000 pzta.

NOIZ:

Larunbatetan, 9:30etatik 13:30etara.

LITERATURA GARAIKIDEAREN LEHEN HITZAK

MATRIKULA EPEAK:

Irailaren 7tik urriaren 8ra.

(larunbatetan itxita)

TASAK: 31.000 pzta.

NOIZ: Larunbatetan, 9:30etatik 13etara.

HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK (PERFILAK)

MATRIKULA EPEAK:

Irailaren 7tik 30era.

TASAK: 25.500 pzta.

Aitor Zabaleta Gorlako kotxe igoeran garaile

Merino irabazle

Brasileña taldeko Merino txirrindulariak irabazi zuen igandean 2. mailako afizionatuentzako Bergaran jokaturako XXVIII. San Martin Saria. Segundu batera Iriondo (Kaiku-Fast Rock) eta D.Etxeberria sailkatu ziren.

Saskibaloia partidua

Larunbatean, hilak 18, arratsaldeko 6. erdian Arrasate Sasbiloi eta Askatuaken arteko adiskidetasun partidua jokatu da kiroldegian. Arrasateko taldean Anjel Iñarra, Igor Uribesalgo, Mikel Garitano eta Aniotz Gabilondo bergararrak arituko dira.

Aitor Zabaleta bergarar gidariak ustekabean irabazi zuen igandean Gorlan jokaturako kotxe igoera. Pantxo Egozkue naparra izan zen larunbateko entrenamenduetan eta igandean indartsuen azaldu zena; berak egin zuen ibilbideko errekorra lehen txanda ofizialean (2 min eta 21 seg.) baina bigarren huts egin zuen tronpo bat egin eta gero eta Zabaletak Egozkueren errua aprobetxatu zuen; bergararrak (Lola BMW) bietan 2.24 markatu zuen eta Egozkuek (Osella BMW) bigarren 2 eta 31 seg. behar izan zituen ibilbideko 5 kilometroak betetzeko. Beraz, bi txandetako denborak zenbatuz gero, Zabaletak Espainiako Txapelketarako baliogarria zen proba irabazi zuen bere zaletuen aurrean.



Zabaleta denborak aztertzen lehen txanda amaitutakoan.

Bai Europa zein Espainiako mendi igoera txapelketan Egozkuek jarraitzen du lider eta Zabaleta, igandeko garaipenaren ondoren, Espainiakoan bigarren jarri da 4 proba falta direnean.

Gainontzeko kategorietan igandean honako hauek izan ziren irabazleak: A kategorian Xabi

Riera katalandarra nagusitu zen BMW M3 bat gidatuz; Alfredo Del Aguila izan zen A 1/2ko gidarien arteko lehena Citroen AX batekin eta azkenik, N kategorian Jesus Mari Santamariak lortu zuen garaipena. Probak ikusmin handia sortu zuen zaletuen artean, 2.500 ikusle inguru bilduz.

Eskola Kirola martxan

Aurten hainbat aldaketa izango dira hastear dagoen Eskola Kirolean: Diputazioaren aginduz, Udalak ezin izango du eskola kirola orain arte bezala eraman eta ikastetxeek kontratatuko dituzte koordinadore eta teknikoak, udala koordinazio orokorren arduradun bihurtuz. Horrez gain, programa aurrera ateratzeko beharrezkoa izango da partaide guztiek kuota bat ordaintzea (1.500 pta.). 3. mailatik 6.era askotariko kirola egin beharko dute, 7. eta 8. mailakoek bakar bat aukeratu dezakete eta txikienentzat (1. go eta 2. maila) jolasak izango dira.



TOKI-ONA

Bodegoia-Taberna

Eguneroa janariak / Txetxizotzak
Kazalaxeak / Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

anezka

Udazkenerako oihalak
eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25



San Juango gazteen ekipoa (1950)

Gaur egun Ipintzan egiten den kuadrila arteko futbol txapelketan bezala, garai batean Altos Hornoseko futbol zelaian jokatzen ziren partiduak benetan ikusgarriak izaten ziren. Gogoratu behar da gainera, Altos Hornoseko futbol zelaian Bergarako talde nagusiak ere partidu mordo bat jokatu dituela. Huraxe izan zen denbora batean herriko futbol kanpoa.

Goian duzuen argazkian 1950. urtean Angiozarko taldearen kontra jokatu zuen San Juango gazteen ekipoa duzue. Partidu hartan ohorea baino zertxobait gehiago zuten jokoan sanjuandar eta angiozartarrek, hain zuzen ere, galtzen zuenak Etxenagusia tabernan bildotsa pagatu behar baitzuen. Angiozartarrek irabazi zuten 1-0 eta, ondorioz, San Juanek pagatu behar izan zuen bildotsa. Arbitroa Canuso izan zen.

San Juango gazte taldea osatzen zuten jokalariak honako hauek dituzue, ezkerretik eskumara eta goitik hasita:

Roque Larrañaga, Sabino, Ignacio Arenaza, Juanito Garai, Eusebio Mendizabal, Jose Arenaza, Felix Garai, Jose Luis Beitia, Felix Arenaza, Jesus Iñarra, Martin Elgarresta eta Jesus Agirre.

Argazkia: Felix Garai


MUGICA

Goxotegia



Artekale, 3
☎ 76 10 34

pastelak,
errellenoak,
tostoiak,
tartak...




JAUJA KIROLAK

Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

HEMEN

edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88

ETXEBIZITZA

Garajea hartuko nuke alokairuan Tokiederren edota Espoioian ☎ 76 52 45.

Pisu amueblatua alokatzetan da herri erdian. ☎ 76 19 29.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 79 83 50.

Pisua salgai San Lorenzo lean. ☎ 76 27 35.

Etxea hartuko genuke alokairuan. ☎ 21 34 60.

DENETARIK

Pastor-aleman txakurkumak salgai. ☎ 76 55 29.

Paseorako bizikleta (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

SEAT ibiza bat salgai. 3 urte, 34.000 km. ☎ 76 35 14.

ZEUS errepideko bizikleta salgai. 56 neurrikoa, pintatu berria. Gurbil berriak. 69.500 pzta.. ☎ 76 11 21.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Master System II konsola salgai. ☎ 76 03 31.

Karabana bat salgai. la berria. ☎ 77 04 98.

Kaminoko bizikleta bat erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

Uberan taberna salgai. Erreztasun haundiak ☎ 76 25 99.

Argazki makina salgai: Nikon AF-601, 35-70 objektiboduna. ☎ 76 00 62.

Kanpin denda haundia salgai. 45.000 pzta. ☎ 76 26 73.

Kitarra klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 45 16.

Trialeko motorra salgai. Merlin 350 zk. ☎ 76 07 04.

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

Ume kotxe bat salgai. ☎ 76 02 00.

Lagunak nahi ditut aste-bukaeretan irtetzeko. (30 urte). ☎ 76 17 85.

Opel Cadet 1800 i kotxea salgai (SS-AK) ☎ 76 45 81.

Bigarren eskuko bizikleta estatiko bat erosiko nuke ☎ 76 50 58.

Transformatutako Vanette furgoneta salgai. Ohe, sukalde, izozkalilu, mahai, iturri eta guzti. ☎ 79 28 81.

TV GAME 2.600 bideo kotsola salgai: 224 joku eta mando eta guzti. 4.500 pzta. ☎ 76 54 12 / 76 13 14.

3 berogailu salgai: ke-roseno, butanozkoa eta elektrikoa. ☎ 78 05 72.

OPEL CORSA City, BI-AK salgai. ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

Doberman arrazako txakur emea salgai. 40.000 pzta. ☎ 76 57 67.

Ilea eta bizarra moztera joango nintzateke etxez etxe. ☎ 76 41 98.

Renault Super 5 kotxea salgai. BI-AL matrikula. ☎ 76 52 90.

LANA

Umeak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 03 72.

OHoko klaseak ematen ditut. ☎ 76 19 59.

Etxeko lanak egin edota umeak zainduko nituzke. ☎ 76 17 85.

Etxeak garbitu edota pertsonak zainduko nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. ☎ 70 12 71.

Ingeleseko klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

OHO eta BBBko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 76 42 08 (Nerea).

Ingeleseko klaseak ematen ditut. ☎ 76 31 36.

Hildakoak

Pilar López Laskurain
irailak 10, 84 urte
Pedro Salgado Galán
irailak 12, 76 urte
Bittor Alberdi Badiola
irailak 12, 88 urte

Jaiotakoak

Nabia Revilla Egiguren
irailak 3
Andoni Mujika López
irailak 5

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



EMAN GOGOR

EUSKARA IKASTAROAK 1993-94

Maila guztiak:
EUSKALDUNTZEN, ALFABETATZEN eta EGA

ERRITMOAK	IRAUPENA	PREZIOAK
Egunero 2 ordu	Iraila-Ekaina	21.450 pzta.
Egunero 3 ordu	Iraila-Ekaina	29.250 pzta.
Egunero 5 ordu	Iraila-Otsaila	29.250 pzta.

Bekatzeko sistema eta diru-laguntzak izango dira.

MATRIKULALDIA:

Irailaren 8tik 21era arte

BULEGO ORDUTEGIA:

Goizez: 8:30-12:30 Arratsaldez: 14:30-20:00

16 URTEZ GORAKOENTZAT

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 (Dorrea eta Mizpirualde
Egoitzaren erdian) BERGARA.

☎ 76 44 53

UDAL  EUSKALTEGIA
UDAL